

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak Kirol Merezimenduaren Urrezko Domina eman dio Mateo Garraldari eskubaloiairen elitean 25 urte baino gehiago egin izanagatik

Barcina Lehendakariak ere Zilarrezko 16 Domina eman dizkie beste hainbeste pertsonari kirola sustatzen era desinteresatuan aritu izanagatik

Miércoles, 28 de noviembre de 2012

[2012ko Nafarroaren Egunaren](#) esparruan, Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcina Angulok Mateo Garralda Larunberi Kirol Merezimenduaren Urrezko Domina eman dio gaur eguerdian eskubaloiairen elitean 25 urte baino gehiago egin izanagatik.



Ezkerretik eskuinera: Alli kontseilaria, Garralda, Catalán eta Indurain.

Barcina Lehendakariak, gainera, Zilarrezko 16 Domina eman dizkie beste hainbeste pertsonari Foru Komunitatean, gutxienez 25 urtez, kirola sustatzen era desinteresatuan aritu izanagatik, lau Aipamen Berezi banatu ditu, halaber.

Nafarroako jauregiko Tronuaren aretoan egindako ekitaldi horretan parte hartu dute ere, Gizarte Politiken kontseilari Íñigo Alli Martínezek; Nafarroako Parlamentuko lehendakari Alberto Catalán Higerasek; eta Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko zuzendari-gerente Pruden Induráin Larrayak.

Bere [agerraldian](#), Barcina Lehendakariak sarituei aitortu die "nafarroak eskerrak eman nahi dizkizuegula gizarteari ematen diozuen guztiagatik, zuon modalitateetan ahalegintzeagatik eta ariketaren hazia ereiteagatik heldu nahiz haurrengan".

Aldiz, Mateo Garraldak onartu du sari honek "ilusio handia egiten diola eta eskerrak ematen dituela horregatik", eta adierazi du "guztiok dugula eredu eman eta ilusioa pizteko betebeharrak zintzotasunez, etikarekin eta balioekin aurrera egin ahal izateko", egungo krisi-egoerari erreferentzia eginez.

Garralda, "eskubaloia duen guztia eman izanaren eredu"

Sari horrekin, Nafarroako Gobernuak aitortzen du Mateo Garralda "eskubaloia duen guztia eman dion eredu" izan dela bai kantxa barnean nahiz handik at", eta "une oro nafarra izatearen ohorea" berretsi duela. Gainera, "haren kirol-arrakasten palmares konparaezina" azpimarratu du.

Gogora ekarri behar da, Garraldak lau olinpiar jokoetan jokatu zuela Espainiako selekzioarekin, eta haietan brontzeko bi domina erdietsi zituela; Munduko zazpi txapelketetan arituen, eta behin urrezko domina lortu zuen eta bi alditan munduko jokalaria onena izendatu bere postuan; Europako Txapelketetan, berriz, zilarrezko hiru domina eta brontzeko beste bat irabazi zituen.

Taldeetan izan duen parte-hartzeari dagokionez, Europako sei txapelketa irabazi ditu; Europako Errekopako bi titulu; Europako lau Superkopa; bederatzi aldiz irabazi du Liga Nazionala; hiru Errege Kopa; Asobal Kopako hiru txapelketa; eta sei aldiz Espainiako Superkopa eskuratu du.

Zilarrezko 16 Domina

Bestalde, Barcina Lehendakariak ere Kirol Merezimenduaren Zilarrezko 16 Domina eman dizkie beste hainbeste nafarri, gutxienez 25 urtez, kirola sustatzen era desinteresatuan aritu izanagatik, zuzendaritzako lanetan nahiz lan teknikoetan. Honako hauek dira, alfabetikoki ordenatuta:

- Pedro Ansorena Remírez, Boscos Sariaren antolaketan zuzendaritzako lanetan 30 urte baino gehiago aritzeagatik.
- Fernando Belzunce Belzunce, Nafarroako ASPACEKO lehendakari 26 urtez biztanleen sektore horretan kirola sustatzen jarduteagatik.
- Joseba Donamaría Azparren, Boscos Sarian zuzendaritzako lanetan 25 urtez aritzeagatik.
- Juan José Echeverría Iriarte, Nafarroako Hipika Federazioan 26 urtez lanean jarduteagatik.
- Luis Javier Echeverría Lecumberri, Beti Onak kirol-taldean eskubaloia sustatzen 25 urtez aritzeagatik.
- Jesús Fernández García, Txantrea KKEko Saskibaloia eta Futbol atalean 40 urtez lan egiteagatik.
- Pedro Fernández-Lascoiti Paniagua, Iruña Rugby Club eta Nafarroako Errugbi Federazioan 30 urtez errugbia sustatzen aritzeagatik.
- Tomás Gonzalo Cuadrado, Boscos Sarian zuzendaritzako lanetan 30 urtez jarduteagatik.
- Mikel Larramendi Bengoetxea, minusbaliatuen artean kirola sustatzen eta Nafarroako Kirol Egokituen Federazioan 25 urtez lanean aritzeagatik..
- José María Pombo Plá, 30 urtez saskibaloia sustatzen jarduteagatik Zizur Nagusian, Ardoi Saskibaloia Taldean eta gaur egun Ardoi Saskibaloia Nafarroako Fundazioan.
- Francisco Javier Recasens León, Nafarroako txirrindularitzan 40 urtez lanean aritzeagatik, bereziki epaileen elkargoan.
- Luis María Retegi Iturbide, 26 urtez pilota sustatzen jarduteagatik Beran
- José Antonio Sanz Vega, Tafallako Cidacos Sarian eta Eskualdeko beste kirol-talde batzuetan 32 urtez lanean aritzeagatik.
- José Javier Sobrino Pina, 31 urtez zenbait kiroletan lan egiteagatik Larraona-Claret taldean eta bereziki Basket Navarra taldeko saskibaloian.



Barcina Lehendakaria eta gainerako agintariak sarituekin.

- Txema Urmeneta Jiranek, Nafarroan errugbia sustatzen egindako 29 urtetako lanagatik, La Unica kirol-taldean nahiz Nafarroako Errugbi Federazioan.
- María Ángeles Urmeneta Torres, Taekwondoan Nafarroan sustatzen egindako 25 urtetako lanagatik.

Ohorezko Lau Aipamen

Azkenik, Nafarroako Lehendakariak Kirol Merezimenduaren Ohorezko lau Aipamen eman die ere honako hauei: San Juan-Donibane Kirol Elkarteari, izan duen ibilbideagatik eta erdietsitako kirol-arrakastengatik; Nafarroako Diabetes Elkarteari (ANADI), diabetikoan diren pertsonen artean kirol-jarduera sustatzen izan duen inplikazioagatik; eta Juan Ignacio eta Raúl San Miguel Muñoz anaiei, pilota sustatzen egindako lanagatik.